

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.
Zuzendaria: Michal Nesterowicz.
Bakarlaria: Lukás Vondráček (pianoa).
Egitaraua: Beethoven, Wagner eta Strauss-en obrak.
Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.
Data: Martxoaren 28a.



Lukás Vondráček piano jotzailea.

Gazte indarra

INDARRA ETA PASIOA izan litezke Euskadiko Orkestrak emandako azken abonua-kontzertuaren laburpena egiten duten bi hitzak. Egitaraua, taxuzkoa, goitik behera; eta interpreteak, gaztetasunak ematen duen ausardiaz ukituak.

Hasiera batean aurreikusita zegoen Arcadi Volodos piano jotzaile errusiarra ezin izan zen etorri, osasun arazoak zirela medio, eta haren ordeztu, Lukás Vondráček txekiarrak aritu zen bakarlari gisa, Beethovenen piano eta orkestrarako, op. 37, 3. kontzertua, detailez josia, eginez. Nabarmenena, pianista gazte honen interpretazioan –28 urte ditu–, soinu-delikadeziaren bilaketa izan zen. Begi bistan zegoen Vondráčeken kezka nagusia soinuaren biribiltasuna zela. Eta honek alde onak –batez ere– eta txarrak ditu. Bertuteen artean aipa dezakegu bertsio erabat kontrolatua egin zuela, inprobisaziorik gabea, pulsatzio bakoitza ondo pentsatua, orijinala, nortasuna duena, dudarik gabe. Baina, horren truke, freskotasun pittin bat falta zen, momentuaren sumaldia agian faltan sumatu genuen. Halere, pianista izugarri baten aurrean egon ginen, zoragarria. Eskupeko gisa

eman zuen obra, Josef Suk txekiarraren *Love song*, lengoia pianistiko errefinatuaren adibidea izan zen, eta Vondráčeken bertsioa, bikaina.

Benetako indarra saioaren bigarren zatian sumatu genuen. Wagner-en Tristan eta Isoldaren *Maitasuneko preludea eta heriotza* obertura zoragarrian laburbildu egiten da musikalki operan garatzen den istorio dramatikoa, non maitasuna eta heriotza elkarrekin doazen. Michal Nesterowicz zuzendari poloniarrek bizi egin zuen interpretazioa eta transmititu egin zien pasio hori musikariei, bertsio asaldatu eginez.

Eta, pasioan murgildu baginen Wagner-ekin, giro berdintsuan jarraitu genuen gero, nahiz eta maitasunaren beste alde batera eraman egitarauak. Strauss-en *Don Juan op. 20* poema sinfonikoa, hain ondo deskribatzen dituen Don Juan pertsonaiaren abentura galanteak, fresko eta sutua iritsi zitzaigun. Horrez gain, Alexandre Da Costa biolin jotzaile portugaldar gaztearen soloak, kontzertino gisa, disfrutagarriak izan ziren. ■

Montserrat Auzmendi



Benito Lertxundi Kilometroen alde


AURTENGO Kilometroak Orion izango dela eta, herriko ikonirik handienetakoa heldu diote antolatzaileek, ikastolen festa hauspotzen hasteko. Apal mintzatu zaigu Benito Lertxundi, apirilaren 12ko emanaldiak zer berezitasun izango duen galdegin diogunean: “Ezer handirik ez, nire herrian izango dela, eta nire herriko jendearekin”.

Azken diskoak osatuko du nagusiki emanaldiko errepertorioa, eta lehengo abestiak ere tartekatuko dira, ezagunagoak, erroak utzi dituztenak. Gauzatxo bat, hala ere, estreinatuko omen du Orion, “beste kontzertuetan entzun ez dena,

eranskintxo bat, baina ez herriari edo testuinguruari lotua”.

Aldiz, bestelako grina erakutsi digu kantariak, Kilometroak hizpide hartuta: “Ekitaldiek betidanik izan dute garrantzia. Ikastolak, hain zuzen, herri honen lorpenik iraultzaileena dira. Horren lekuko izan gara azken mende erdi honetan. Ez dakit gaur zenbateraino baloratzen den, baina gure erronka guztien ispilu dira. Sinbolismoagatik bakarrik, ezer ez ginateteke izango, hori galtzen utziko bagenu”. ■

G.U.G.



Apirilaren 12an izango da Benito Lertxundik Kilometroen alde eskainiko duen kontzertua. Orioko Karela kiroldegian, 22:00etan.